

Uztailaren 15eko 736/2002 FORU AGINDUA, zenbait hidrokarburoren Txikizkako Salmenten gaineko Zerga kudeatzeko arauak onartzen dituen.

AZALPEN OHARRA

Testu hau dibulgaziozkoa da soilik, eta ez du inolako izaera ofizialik. Eguneratutako Foru Arau osoa jasotzen da bertan.

1. artikulua. Saldutako eta erosleen eskura jarritako produktuak frogatzea.	2
2. artikulua. Salbuespenak nazioarteko harremanen esparruan.	2
3. artikulua. Martxoaren 20ko 2/2002 Foru Arauak, Zenbait Hidrokarburoren Txikizkako Salmenten gaineko Zergari buruzkoak, jasotzen dituen gainerako salbuespenak.	2
4. artikulua. Nazioarteko harremanen esparruan karburantea hornitzeagatik egin beharreko itzulketa.	3
5. artikulua. Produktuak itzuli edo ordezkatzeta.	3
6. artikulua. Jasanarazpena.	3
7. artikulua. Lurraldeko erregistroan inskribatzea.	4
8. artikulua. Txikizkako saltzaileen identifikazio kodea.	4
9. artikulua. Jarduera uztea.	5
10. artikulua. Identifikazio karaktereen zerrenda eta inskripzio txartela onartzea.	5
XEDAPEN GEHIGARRIA.	5
AMAIERAKO XEDAPENA.	5
I. ERANSKINA	6
II. ERANSKINA	6
ZENBAIT HIDROKARBUROREN TXIKIZKAKO SALMENTEN GAINEKO ZERGA.	6
IMPUESTO SOBRE VENTAS MINORISTAS DE DETERMINADOS HIDROCARBUROS.	6
GIPUZKOAKO ERREGISTROAREN TXARTELA	6
TARJETA DE INSCRIPCIÓN EN EL REGISTRO DE GIPUZKOA	6

Martxoaren 20ko 2/2002 Foru Arauak Zenbait Hidrokarburoren Txikizkako Salmenten gaineko Zerga ezarri zuen 2002ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

Gasolina, gasolio, fuel-olio, keroseno eta zergaren esparru objektiboan sartuta dauden gainerako produktuen kontsumoa zergapetzen duen zeharkako zerga dugu eratu den hau, eta bere sorrera justifikaturik dator zerga politikaren tresna bat izan nahi duelako osasun alorreko gastuak eta ingurumenaren arloko jarduketak, denak ere aldundiaren eskumenekoak, finantzatu ahal izateko. Aipatutako foru araua aplikatuko bada, zerga kudeatu eta biltzeko prozedurak garatu behar dira eta, orobat, zergaren subjektu pasiboek bete beharreko obligazio formalak zeintzuk izango diren finkatu.

Zentzu horretan, martxoaren 20ko 2/2002 Foru Arauaren 12. artikulua xedatuta utzi zuen subjektu pasiboak zerga aitortpenak aurkeztera eta, hala behar denean, bidezko autolikidazioak egitera behartuta egongo direla. Gainera, artikulua horrek berak dio Ogasuneko eta Finantzetako foru diputatuak zerga likidatzeko

prozedura eta haren kontrolerako behar diren kudeaketa arauak finkatuko dituela.

Zerga honek lehen adierazitako produktuen txikizkako salmentak zergapetzen dituenez (Hidrokarburoen gaineko Zergari lotuta dauden produktuenak hain zuzen), foru arauak bat egiten du bere tratamenduan martxoaren 3ko 20/1998 Foru Dekretuak, Gipuzkoako zerga araudia Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legean xedatutakoak egokitzeak, jasotzen duenarekin. Dekretu horretan ezarritakoari hainbat erreferentzia egiteaz gainera, zergaren elementuak aipatzerakoan dekretu horretara igortzen gaitu maiz, bereziki nazioarteko akordio eta hitzarmenak aplikatzetik datozen salbuespenen tratamenduan.

Bide horretan ere, foru agindu honek aipagai hartzen du lehen adierazi dugun martxoaren 3ko 20/1998 Foru Dekretua. Zergaren kudeaketa erraztera egiten da horrela, zenbait tramite, dokumentazio eta formaltasun bikoiztu ez daitezten.

Azkenik, esan behar da martxoaren 20ko 2/2002 Foru Arauaren amaierako bigarren xedapenak ahalmena ematen diola Ogasuneko eta Finantzetako foru diputatuari foru arau hau garatu eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak eman ditzan.

Horiek horrela, honako hau

XEDATU DUT

1. artikulua. Saldutako eta erosleen eskura jarritako produktuak frogatzea.

Martxoaren 20ko 2/2002 Foru Arauak, Zenbait Hidrokarburoren Txikizkako Salmenten gaineko Zergari buruzkoak, 5.hiru artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, subjektu pasiboek fakturen, ordainagirien, ordainketa-frogagiriaren edo antzeko dokumentuen kopia erakutsiz nahiz Zuzenbidean onartzen den beste edozein baliabide erabiliz frogatu behar dituzte produktuak saldu eta erosleen eskura jarri direla. Produktuak erremediorik gabe galdu badira beren izaera dela-eta edo ezusteko nahiz ustekabeko egoera bat dela medio, eta horren ondorioz saldu gabe edo erosleen esku jarri gabe gelditu badira, subjektu pasiboek behar diren frogak aurkeztuko dituzte hori hala izan dela justifikatzeko.

2. artikulua. Salbuespenak nazioarteko harremanen esparruan.

1. Martxoaren 20ko 2/2002 Foru Arauak, Zenbait Hidrokarburoen gaineko Zergari buruzkoak, 6. artikuluan Bat apartatuko a), b) eta c) paragrafoetan aipatzen dituen salbuespenak aplikatu ahal izateko, zerga honi atxikitako produktuen kantitateak, salbuespenaz gozatzen duten pertsona eta entitateek kontsumitzeko egokitzen jotzen direnak, Hidrokarburoen gaineko Zerga Bereziaren salbuespenaren ondorioetarako onartu diren moduluei eta, bere kasuan, justifikatutako kontsumo beharrei dagozkienak izango dira.

2. Salbuespenaren aplikazioa eskatzeko eta erabilpen salbuetsia baimentzeko, Hidrokarburoen gaineko Zergaren salbuespena tramitatzeke ezarrita dagoen prozedura eta dokumentu bera erabiliko da.

3. artikulua. Martxoaren 20ko 2/2002 Foru Arauak, Zenbait Hidrokarburoren Txikizkako Salmenten gaineko Zergari buruzkoak, jasotzen dituen gainerako salbuespenak.

1. Zerga honetan ematen den salbuespena justifikaturik geratuko da, kasu bakoitzerako, Hidrokarburoen gaineko Zergaren salbuespena edo itzulketarako baimena aurrez aitortu bada, salbu eta itsasontzi eta aireontziak hornitzeko eragiketak egiten direnean eta araudian aurretiazko baimenik ezartzen ez denean.

2. Aitorpena aurkeztu eta kuotak ordaintzeko ezarritako hilabetea amaitu ondorengo lehen bost lanegunen barruan, subjektu pasiboak epealdiko eragiketa salbuetsiak aitortu beharko ditu eta aitorpen hori Ogasun eta Finantza Departamentuko Zeharkako Zergen Zerbitzuan aurkeztu. Horretarako ekainaren 24ko 638/2002 Foru Aginduaren bidez onartutako 569 eredu bate beharko du, hain zuzen ere, Zenbait Hidrokarburoen Txikizkako Salmenten gaineko Zergaren aitorpen-likidazioa eta horniketa salbuetsien zerrenda aurkezteko erabili behar dena. Zerrendaren barruan subjektu pasiboak establezimendu batetik baino gehiagotik egindako horniketa salbuetsiak jasotzen badira, foru agindu horren bidez onartu den banaketa orria aurkeztuko da (569 ereduaren eranskina).

Baimena eman ahal izango da informazio hori formatu elektronikoz aurkeztu dadin.

4. artikulua. Nazioarteko harremanen esparruan karburantea hornitzeagatik egin beharreko itzulketa.

Zergapetutako produktuen salmentak jendaurreko txikizkako saltokietan egiten direnean, martxoaren 20ko 2/2002 Foru Arauak, Zenbait Hidrokarburoen Txikizkako Salmenten gaineko Zergarenak, 6. artikulua Bat apartatuko a), b) eta c) paragrafoetan aipatzen diren salbuespenak artikulua horren Bi apartatuan ezarritakoari jarraiki aplikatuko dira, hau da, erositako karburanteen prezioan sartu diren zergaren kuotak itzuliz. Horretarako, ekainaren 17ko HAC/1.554/2002 Aginduak, Zenbait Hidrokarburoen Txikizkako Salmenten gaineko Zergaren kudeaketa arauak onartzekoak, bosgarren apartatuan jasotzen duen prozedurari jarraituko zaio.

5. artikulua. Produktuak itzuli edo ordezkatzeari.

Martxoaren 20ko 2/2002 Foru Arauak, Zenbait Hidrokarburoen Txikizkako Salmenten gaineko Zergarenak, 5. artikulua Bi apartatuan aipatzen duen ez-zergapetze kasua aplikatu ahal izateko, aldeztu aurretik Ogasun eta Finantza Departamentuko Zeharkako Zergen Zerbitzuari jakinarazi behar zaio.

Komunikazio horretan subjektu pasiboek adierazi beharko dute zein establezimendutan dauden itzuli edo ordezkatu beharreko produktuak, horien kantitatea eta izaera nolakoa den, eta zein establezimendutara bidaliko diren.

6. artikulua. Jasanarazpena.

1. Fakturak egin eta emateko obligazioa dagoenean, sortutako kuotak fakturan edo agiri baliokidean jasanaraziko dizkiete subjektu pasiboek produktuen erosleei, bertan ageri diren gainerako kontzeptuetatik bereizita.

2. Zergaren jasanarazpena bereizita adierazteak subjektu pasiboak egiten dituen jardueren garapena modu nabarmenean oztopatzen duenean, eta subjektu pasiboak aurrez eskatzen badu, Ogasun eta Finantza Departamentuko Zeharkako Zergen Zerbitzuak baimena eman dezake zerga prezioaren barruan jasanarazteko. Horrelakoetan, honako espresioa jarriko da dokumentuan:

“Zenbait Hidrokarburoren Txikizkako Salmenten gaineko Zerga prezioan sartuta (%.....)”.

3. Salbuespen bat aplikagarria denean edo 5. artikuluan aipatu den egoera, zergari ez lotzekoa, gertatzen denean, fakturan edo agiri baliokidean zirkunstantzia hori jasoko da.

7. artikulua. Lurraldeko erregistroan inskribatzea.

1. Subjektu pasiboek jendaurreko txikizkako saltokiak erabiltzen badituzte zergari lotutako autokontsumo eragiketak eta zergapetutako produktuen salmentak egiteko -martxoaren 20ko 2/2002 Foru Arauaren 4.Bi artikuluan definitzen dira saltoki horiek-, Ogasun eta Finantza Departamentuko Zeharkako Zergen Zerbitzuaren erregistroan inskribatu beharko dituzte.

Era berean, norbere kontsumorako establezimenduak edukiz gero -martxoaren 20ko 2/2002 Foru Arauaren 4.Hiru artikuluan aipatuak- haien titularrek ere Ogasun eta Finantza Departamentuko Zeharkako Zergen Zerbitzuaren erregistroan inskribatu beharko dituzte zergapetutako produktuak Europako Batasuneko beste estatuetatik edo inportazio aduanatik zuzenean jasotzen dituztenean.

2. Establezimenduak lurraldeko erregistroan inskribatzera behartuta dauden subjektu pasiboek inskribatzeko eskaera orria aurkeztu beharko dute, eta bertan honako hau adierazi, izaera orokorrean:

a) Subjektu pasiboaren edo, hala badagokio, ordezkariaren izen-abizenak edo sozietate izena, zerga helbidea eta identifikazio fiskaleko zenbakia. Ordezkariaren kasuan, ordezkaritza frogatzen duen dokumentazioa aurkeztuko du.

b) Establezimendu mota eta kokalekua, helbidea eta herria ere adieraziz.

3. Inskripzioa egin ondoren, Ogasun eta Finantza Departamentuko Zeharkako Zergen Zerbitzuak inskripzioa egiaztatzen duen txartela emango dio interesatuari zergaren ondorioetarako. Txartel hori Foru Agindu honen II. eranskinean ageri den ereduarekin bat etorriko da, eta bertan identifikazio kodea geratuko da jasota. Haren bitartez jakin ahal izango da txikizkako salmentak zein establezimendutan egiten diren, horniketak nondik abiatzen diren edo zergari lotutako autokontsumoak non burutzen diren.

4. Artikulu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, autokontsumotzat hartuko da zergari atxikitako produktuak txikizkako salmenta egiten den establezimenduetan kontsumitu edo erabiltzea. Aldiz, produktu horiek kontsumitu edo erabiltzen badira martxoaren 3ko 20/1998 Foru Dekretuak, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren zerga araudia Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legea egokitzeak, 4.20 artikuluan aipatzen duen suspentsio erregimenaren berezko eragiketetan, hori ez da autokontsumo izango.

8. artikulua. Txikizkako saltzaileen identifikazio kodea.

1. Txikizkako saltzaileen identifikazio kodeak zergapetutako eragiketak egiteko erabilitako establezimendu eta jarduerak identifikatzen ditu, eta artikulu honetan ezartzen denaren arabera eratzen da.

2. Zortzi karaktere izango ditu kodeak, honela banatuak:

- Bi digituk Ogasun eta Finantza Departamentuko Zeharkako Zergen Zerbitzua identifikatuko dute. Bi hauek izango dira: 20.

- Bi digituk establezimenduan egiten den jarduera identifikatuko dute.

- Hiru karaktere alfanumerikok lurraldeko erregistroan egindako inskripzioaren zenbakia adieraziko dute jarduera bakoitzerako.

- Kontrol letra bat.

3. Ondorio horietarako, artikulua honen 2. zenbakian aipatzen diren identifikazio karaktereak I. eranskinean zehazten dira.

9. artikulua. Jarduera uztea.

Inskribatutako establezimenduetan jarduera egiteari uzten bazaio, subjektu pasibo titularrak edo eragiketa lotuak haien bitartez egiten dituenak Ogasun eta Finantza Departamentuko Zeharkako Zergen Zerbitzuari jakinarazi beharko dio. Tramite hori ezinbestekoa izango da establezimenduari erregistroan baja eman ahal izateko.

10. artikulua. Identifikazio karaktereen zerrenda eta inskripzio txartela onartzea.

Onarturik geratu da identifikazio karaktereen zerrenda, foru agindu honetako I. eranskinean ageri dena, eta orobat, Ogasun eta Finantza Departamentuko Zeharkako Zergen Zerbitzuko erregistroan inskribatzeko txartela, foru agindu honetan II. eranskin gisa jasota dagoena.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Foru agindu hau indarrean sartu aurretik Ogasun eta Finantza Departamentuko Zeharkako Zergen Zerbitzuak Hidrokarburoen gaineko Zergari dagokionez onartuak dituen salbuespen erabakiak, behin-behinean, Zenbait Hidrokarburoren Txikizkako Salmenten gaineko Zergen baliokideak diren salbuespenetara zabalduko dira, kanpoan utziz, beti ere, martxoaren 3ko 20/1998 Foru Dekretuak Gipuzkoako zerga araudia Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legea egokitzeak, 51.3 artikuluan jasotako salbuespenei dagozkienak. Dena den, Ogasun eta Finantza Departamentuko Zeharkako Zergen Zerbitzuak salbuespenak aplikatzeko beharrezkoak diren baldintza eta eskakizunen betetze maila ebaluatu ahal izango du.

AMAIERAKO XEDAPENA

Foru agindu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean.

I. ERANSKINA

Ondoko hauek dira inskribatu beharreko jendaurreko txikizkako saltokiak identifikatzeko karaktereak:

GD: Gasolindegia.

NK: Norbere kontsumorako establezimenduak.

HN: Hornitzaileak.

TS: Gainerako jendaurreko txikizkako saltokiak.

II. ERANSKINA

ZENBAIT HIDROKARBUROEN TXIKIZKAKO SALMENTEN GAINEKO ZERGA

IMPUESTO SOBRE VENTAS MINORISTAS DE DETERMINADOS HIDROCARBUROS

GIPUZKOAKO ERREGISTROAREN TXARTELA

TARJETA DE INSCRIPCIÓN EN EL REGISTRO DE GIPUZKOA

SUBJEKTU PASIBOAREN IFZ:

N.I.F. DEL SUJETO PASIVO:

SOZIETATERAREN IZENA:

RAZÓN SOCIAL:

ZERGA HELBIDEA:

DOMICILIO FISCAL:

UDALERRIA:

MUNICIPIO:

PROBINTZIA:

PROVINCIA:

TXIKIZKAKO SALTZAILEAREN
IDENTIFIKAZIO KODEA:

CÓDIGO DE IDENTIFICACIÓN MINORISTA:

ESTABLEZIMENDUAREN HELBIDEA:
DOMICILIO DEL ESTABLECIMIENTO:

UDALERRIA:
MUNICIPIO:

PROBINTZIA:
PROVINCIA:

JARDUERA:
ACTIVIDAD:

ERREGISTROAN IZENA EMATEAREN
EGUNA:
FECHA DE INSCRIPCIÓN:

Txartel honen titularra Gipuzkoako Erregistroan izena emana dago.
El titular de esta tarjeta ha sido inscrito en el Registro de Gipuzkoa.